

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA) 2004ko 3. hiruhilekoa

Udan 6.500 landun gehiago eta 4.200 langabe gutxiago Euskal AEn

2004ko hirugarren hiruhilekoan langabezia-tasa %7,6koa izan zen, Eurogunean eta EU-25en lortutakoa baino ia puntu eta erdi txikiagoa

Eustatek zabaltzen duen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatze Inkestaren arabera, 2004ko hirugarren hiruhilekoko lan-merkatuaren datuetan, 908.200 landun zenbatu ziren, aurreko hiruhilekoan baino %0,7 gehiago. Bestalde, langabezia-tasa aurreko hiruhilekoko %8tik %7,6ra jaitsi zen. Datu horiek finkatu egin zuten 2004ko bigarren hiruhilekoan ikusitako joera, hau da, landunak gehitzen doaz eta langabeak gutxitzen.

2004ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz, langabeak 4.200 gutxitu ziren eta langabezia-tasa 0,4 ehuneko-puntu jaitsi zen. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa %55ean kokatu zen.

Gizonezkoen langabezia-tasa %6,2ra jaitsi zen (hiru hamarren) eta emakumeena ere, askoz ere altuagoa izan arren (%9,4koa), zazpi hamarren jaitsi zen. Gazteen langabezia-tasa 2,4 ehuneko-puntu hazi zen eta 16tik 24 urtera bitarteko bost gazte aktibotik bat harrapatu zuen (%22,2).

2004ko hirugarren hiruhilekoko Euskal AEko langabezia-tasa Euroguneakoaren azpitik kokatu zen, ia hamarren bat eta erdi beherago. EUROSTAT- Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2004ko abuztuan, langabezia-tasa %9an mantendu zen guene honetan. Europar Batasun guztiko tasa, hots 25 herrialdeak kontuan hartuta lortutakoa, Euroguneakoaren berdina izan zen.

Langabezia-tasa jaitsi egin zen hiru lurralde historikoetan

Gizonezko langabeen kolektiboak 35.100 lagun hartu zituen, 1.600 gutxiago. Emakumezkoen artean, 2.600ek utzi zioten langabe izateari azken hiruhilekoan eta orain 39.200 dira langabeak. 25etik 44 urtera bitartekoen taldea nabarmen jaitsi eta 2.900 langabe galdu zituen, eta are gehiago 45 urte eta gehiagokoena (-3.600).


Langabeak 74.300 izan ziren 3. hiruhilekoan, eta hiru herrialdeetan gutxitu ziren. Bizkaian 42.300 lagun zeuden langabezian, orain dela hiru hilabete baino 2.300 gutxiago, hala ere %8,3ko langabezia-tasa hiru lurraldeetan altuena izan zen. Araban, 7.500 izan ziren langabetuak, 1.500 lagun gutxiago, eta tasa %5,2ra jaitsi zen. Gipuzkoak 500 langabe galdu zituen, langabeziak 24.400 laguni eragin zien eta langabezia-tasa %7,4ra iritsi zen.

Bestalde, gehitu egin ziren 16 urtetik 24ra bitarteko gazte taldeko langabetuak (+2.300).

Landunak gehiago izan ziren hiruhileko honetan ere. Hiru herrialdeak batu ziren enplegu-sorkuntza garbira 2004ko hirugarren hiruhilekoan

Landunak 908.200 izan ziren, duela hiru hilabete baino 6.500 gehiago. Hiru lurraldeetan gehitu zen okupazioa: Bizkaiak 3.200 enplegu gehiago izan zituen, Gipuzkoak 2.400 gehiago eta Arabak 900 gehiago. Biztanleria landunaren igoerak, sexuari dagokionez, gizonezkoei zein emakumezkoei eragin zien, baina emakumeen okupazioak bilakaera hobea izan zuen, aurreko hiruhilekoan baino 4.700 landun gehiago izan baitziren.

Biztanleria landunaren joera, 1985tik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: EUSTAT

Industriak 5.900 enplegu sortu zituen eta zerbitzu-sektoreak 3.600 gehiago

2004ko bigarren hiruhilekoaren aldean, industriako landunak 5.900 gehiago izan ziren eta zerbitzu-sektorekoak 3.600 gehiago. Eraikuntzak ia-ia aurreko emaitza bera izan zuen eta lehen sektoreak 3.000 landun galdu zituen.

Landunen tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanleen kopuruaren gainean landunek duten ehunekoa, %64,4koa izan zen, hots, hiru hilabete lehenago baino lau hamarren handiagoa. Tasa hori gizonezkoentzako %74,9koa izan zen eta emakumezkoentzako, berri, %53,9koa.

Lurralde historikoka, landunen tasarik altuena Arabak izan zuen berriro ere, %67,4koa, eta puntu erdi hasi zen. Gipuzkoak %67,5eko tasa lortu eta ehuneko 6 hamarren gehitu zituen. Azkenik, Bizkaiak izan zuen tasarik baxuena, %61,8koa, eta ehuneko 0,4 puntu hazi zen 2004ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Erreferentzia gisa etxeak hartuta, 2.500 gutxiago izan ziren kide aktibo guztiak langabezian zituztenak eta kide aktibo guztiak lanean zituztenak ez ziren kopuruz aldatu.

Zerbitzuen sektorean 13.400 enplegu garbi sortu ziren 2003ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, baina gainerako sektoreetan 10.200 desagertu ziren

Landunak 3.200 gehiago izan ziren, urtebete lehenago baino, hau da, %0,35 gehiago. Landunen tasan ehuneko 2 puntuko igoera izan zen emakumezkoentzat, eta gizonezkoentzat, aldiz, 1,2 puntuko jaitsiera. Lurralde historikoka, azken hamabi hilabeteetan, Bizkaiko (zortzi hamarren) eta Gipuzkoako (0,1 puntu) tasak hazi egin ziren, eta Arabakoa, oster, zortzi hamarren jaitsi zen, 2004ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Azken urtean, zerbitzu-sektoreak 13.400 enplegu garbi sortu zituen. Hala ere, Industriak pisua galtzen jarraitu eta 1.400 landun galdu zituen; Nekazaritzak 3.200 eta Eraikuntzak-5.600. Aldi horretan, landunen tasa lau hamarren hazi zen.

Langabezia-tasa puntu erdi jaitsi zen azken urtebetean

Azken urtean, langabezia-tasa puntu erdi jaitsi zen Euskal AEn. Sexuaren arabera, emakumezkoetan puntu eta erdi jaitsi zen, eta gizonezkoetan, hamarren bat igo. Gazteen langabezia-tasa ehuneko 1,1 puntu igo zen eta 15 urtetik 44ra bitarteko taldeak puntu bat galdu zuen. Langabezia-tasa 2,2 ehuneko-puntu jaitsi zen Araban eta zazpi hamarren Gipuzkoan. Bizkaian berriz, bere horretan mantendu zen.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2004ko 3. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	%	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.786,2		-0,7		-4,8	
AKTIBOAK/ JARDUERA TASA	982,5	55,0	+2,3	+0,2	-2,3	+0,0
Gizonezkoak	564,9	65,4	+0,1	-0,0	-10,0	-0,9
Emakumezkoak	417,5	45,2	+2,0	+0,3	+7,6	+0,9
BIZTANLERIA LANDUNA/ ENPLEGU-TASA	908,2	64,4	+6,5	+0,4	+3,2	+0,4
Gizonezkoak	529,9	74,9	+1,9	+0,0	-10,0	-1,2
Emakumezkoak	378,4	53,9	+4,7	+0,8	+13,3	+2,0
Araba	137,6	67,4	+0,9	+0,5	-1,1	-0,8
Bizkaia	466,0	61,8	+3,2	+0,4	+4,4	+0,8
Gipuzkoa	304,6	67,5	+2,4	+0,6	-0,1	+0,1
Nekazaritza	14,5		-3,0		-3,2	
Industria	246,7		+5,9		-1,4	
Eraikuntza	83,9		+0,1		-5,6	
Zerbitzuak	563,1		+3,6		+13,4	
LANGABEAK/ LANGABEZI-TASAK	74,3	7,6	-4,2	-0,4	-5,5	-0,5
Gizonezkoak	35,1	6,2	-1,6	-0,3	+0,1	+0,1
Emakumezkoak	39,2	9,4	-2,6	-0,7	-5,6	-1,5
16 - 24	19,1	22,2	+2,3	+2,4	+0,5	+1,1
25 - 44	43,8	7,7	-2,9	-0,5	-6,6	-1,0
45 eta gehiago	11,4	3,5	-3,6	-1,1	+0,6	+0,1
Araba	7,5	5,2	-1,5	-1,0	-3,6	-2,2
Bizkaia	42,3	8,3	-2,3	-0,5	+0,3	-0,0
Gipuzkoa	24,4	7,4	-0,5	-0,2	-2,4	-0,7
Lehen enplegu bila	11,1	14,9	+1,2		-4,1	
Urte 2 edo gehiago darama enplegu bila	14,0	18,8	+0,1		+2,3	
EZ-AKTIBOAK EZ-AKTIBOTASUN TASA	803,8	45,0	-2,8	-0,1	-2,3	-0,0
ETXEBIZITZAK	731,0		-2,9		-4,5	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	527,8	72,2	-3,7		-12,5	
- Guztiak okupatuak	465,7	63,7	+0,0		-6,4	
- Guztiak langabeak	16,4	2,2	-2,5		-2,3	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	203,3	27,8	+0,9		+8,1	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: M^a José Santamaría Gallardo

Tel.: +34-945 017 533. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp